

Con esta fiscalidad no hay justicia social

Aurrekontuetan islatzen da gobernuen eta hauek babesten dituzten alderdien borondate politikoa. Gure gizarte-babes maila Europar Batasuneko azken postuetan dago. Honek zerga-politikarekin du zerikusia. EAEko eta Nafarroako ogasunek soldatapeko ez diren errentetan iruzur fiskala ontzat eman dute, eta zergak jaitsi dizkiete errenta altuei, enpresen eta kapitalaren errentei.

ZERGA POLITIKA

ELAk fiskalitatean erabateko aldaketa aldarrikatu izan du. Halere, EAEko ogasunek (EAJren eta PSE-PSOEn kontrolpean) baztertu egiten dute zerga-politikan aldaketarik txikiena ere egiteko aukera. Nafarroako Gobernu berriak plazaratu duen erreformak, berriz -Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerrak adostua- sinbolikoa besterik ez da. Diru-bilketan ez du apenas eraginik izango (44,3 milioi euro 2016an), hots, aipatu den europar batez bestekoarekiko gabeziaren %3a ere ez du osatzen.

AURREKONTUAK

Beraz, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak aurkeztu dituzten aurrekontu-proiektuetan arlo sozialeko baliabide urriak aurreikusi dituzte. Errealitateak agerian uzten du diskurtso ofiziala, murrizketarik ez dutela egin dioen hori. Esaterako:

- 2016ko osasuneko partida 2010ekoa baino txikiagoa da. Eusko Jaurlaritzak osasungintzarako 126 milioi euro gutxiago jaso ditu aurrekontuan, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, 29 milioi gutxiago.
- Gauza bera gertatzen da Hezkuntzan. 2016an Nafarroako Gobernuak 2010ean izandako gastu efektiboa baino 67 milioi euro gutxiago bideratuko ditu. EAEko murrizketa arlo honetan: duela sei urte baino 181 milioi gutxiago.
- Europar batez besteko mailarekiko gizarte-gastuaren defizita gai hauetan urtez urte handiagoa da.

Aldiz, zorra ordaintzeko gastua itxuragabe puztu da. 2016an Eusko Jaurlaritzak kapitulu honetara 1.170 milioi euro bideratuko du, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, 459. Hau da, 2010ean baino 980 eta 315 milioi gehiago, hurrenez hurren.

ELAk etorkizunean ere aldaketa soziala aldarrikatuko du. Horretarako aurrekontu- eta zerga-politika goitik behera aldatu beharra dago. Alternatibak badira, eta mobilizazioari eutsi egingo diogu, gauza daitezen.

Los presupuestos muestran la voluntad política de los gobiernos y de los partidos que los apoyan. Nuestro nivel de protección social está a la cola de la Unión Europea. Esto está relacionado con la política fiscal. Las haciendas de la CAPV y de Navarra han venido permitiendo el fraude fiscal a las rentas no salariales y han reducido los impuestos a las rentas altas, a las empresas y al capital.

FISCALIDAD

ELA ha venido reclamando un giro radical en la fiscalidad. Sin embargo, las haciendas de la CAPV (controladas por el PNV y PSE-PSOE) se niegan a modificar ni un ápice la política fiscal. Y la reforma presentada por el nuevo Gobierno de Navarra, consensuada entre Geroa Bai, EH Bildu, Podemos e Izquierda-Ezkerra, es meramente simbólica. Resulta evidente su poca relevancia recaudatoria (44,3 millones de euros en 2016), que no llega a cubrir ni el 3% de la mencionada diferencia con la media europea.

PRESUPUESTOS

Los proyectos de presupuestos presentados por el Gobierno Vasco y por el Gobierno de Navarra mantienen una escasa dotación de las partidas sociales. La realidad deja en evidencia el discurso propagandístico de que no hay recortes. Así, por ejemplo:

- *La partida presupuestaria destinada a Salud en 2016 es inferior a la de 2010. En concreto, el Gobierno Vasco presupuesta para Sanidad 126 millones menos, descenso que en el caso de Navarra es de 29 millones de euros.*
- *Lo mismo ocurre en Educación. En 2016 el Gobierno de Navarra destina 67 millones de euros menos que lo efectivamente gastado en 2010. El recorte del Gobierno Vasco en esta materia es de 181 millones de euros respecto a seis años antes.*
- *El déficit de gasto social en estas materias respecto a la media europea crece año a año.*

Mientras, ha crecido enormemente el gasto destinado al pago de la deuda. En 2016 el Gobierno Vasco destinará a ello 1.170 millones de euros, y el Gobierno de Navarra, 459. Esto es, 980 y 315 millones más, respectivamente, que en 2010.

ELA va a seguir reclamando el cambio social. Para ello es imprescindible un cambio radical de la política presupuestaria y de la política fiscal. Existen alternativas, y vamos a seguir movilizándonos para exigir que se apliquen.

AURREKONTU BIDE GABEAK

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Con esta fiscalidad
no hay justicia social

**AURREKONTU
BIDEGABEAK**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA